

# Inkezka



Estitxu Garai Artetxe

EHU-KO IRAKASLEA

@egarai

Lantzean-lantzean eurekin egiten dugu topo, gero eta sarriago, egia esan. Inkesta, barometro eta mota guztietako iritzi-neurketei buruz ari naiz. Agian, kopuruari erreparatuz gero, ez dira hainbeste ugaritu; bai, ordea, hartu duten garrantzia eta arreta mediatikoari dagokionez. Hedabideetako solasaldietarako gogoko bazka dira.

Batzuetan, amorrarazi egiten gaituzte, gaiari heltzeko eran eta galderen formulazioan bertan igartzen baitzaie jite politikoa. Gehienetan, ordea, ez dakit behar beste presente dugun inkesten gaitasun performatiboa, alegia, errealtatea neurtzeko edo aztertzeko ez ezik, errealtatea sortzeko eta eraldatzeko ere balio dutela. Eguneroko adibide bat jartzearen, demagun afaltzeko bi jate txeren artean aukeratu behar dugula, eta bata jendez josita dagoela eta bestea erdi hutsik. Nora uste duzue joko dugula? “Jendea nora, ni hara” printzipioak funtzionatzen du, baita politikan ere. Bizitzan hartzen ditugun erabaki guztiak ez dira sobera meditatutak, eta gehiengo iritzi batekoa edo bestekoa dela uste izatea edo alderdi honek edo besteak irabaziko duela pentsatzea ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Inkestak horretara datoz.

Badirudi komunikabideak ere horretaz jabetu direla. Euren ikerketa propioak bultzatzeaz gain, euren galbahetik pasa ostean iristen zaizkigu beste erakundeek egindakoak ere, nahi dutena eta nahi eran azpimarratuta. Eta, nola ez, ikerketa baten emaitzei daren ebidentzia edo kutsu objektiboak eraginda irensten ditugu.

Nahiko zabaldua dago komunikabide bakoitzak bere lerro editoriala duela eta albisteak horren arabera jorratzen dituztela, baina inkesten aurreko antigorputzak ez ditugu hain garatuta. Hortaz, datu demoskopikoek iritzi publikoa bideratzeko eta portaera politikoak

Nahiko zabaldua dago komunikabide bakoitzak bere lerro editoriala duela eta albisteak horren arabera jorratzen dituela, baina inkesten aurreko antigorputzak ez ditugu hain garatuta. Hortaz, datu demoskopikoek iritzi publikoa bideratzeko eta portaera politikoak baldintzatzeko balio badezakete, botere mediatikoa areagotzeko tresna baten aurrean gaude

baldintzatzeko balio badezakete, botere mediatikoa areagotzeko tresna baten aurrean gaude.

Ezer gutxi dakigu, halaber, ikerketa egiteko moduz. Laginari, aldiari eta akats tarteari buruzko datuak ematen dizkigute, baina ez, aldiz, “sukalde” lan famatuari buruz, hau da, estimazioak egiteko darabilten erari eta zalantzan dauden erantzunekin egiten diren desbideraketei buruz. Informazio hori jakingarria iruditzen zait diru publikoarekin ordaindutako ikerketetan, iruditzen baitzait, batetik, gardentasuna ezinbesteko ezaugarria izan beharko litzatekela, eta, bestetik, datuak emateko orduan erabateko zorroztasuna izan beharko luketela.

EAEko hauteskunde autonomikoen aurretik egindako azken EiTb Focus inkestan, esaterako, albiste bihurtu zen Arabako azken eserlekua dantzan egon zitekeela EAJren eta Ciudadanos-en artean, horri eman zitzaion interes informatiboa; are, 100 botoren gorabeheran ibili zitekeela baieztatu ziguten. Astebe-te eman zuten albistegi eta gaurkotasun solasaldietan datua bota eta bota, eta ez edozein astetan: hauteskunde astean bertan. Soziologiari buruz asko jakin gabe ere, edozeinek suma dezake akats tartea eta zalantzatien portzentajea kontutan hartuta hainbesteko xehetasuna duen datua baieztatzeak funts handirik ez duela, eta eserleku bat boto gutxiren bueltan egon daitekeela hedatzeak eragina izan dezakeela lurralde horretan bi alderdiek jasoko dituzten botoetan.

Azkenak “nafarro metroa” eta Eusko barometroa izan dira. Agian, artikulua hau argitaratzerako besteren bat ere tartekatuko da. Horietako bakoitzak aparteko analisisa merezi du, baina horiek ur handiak dira eta gaurko honetan nire inkezka adieraztearekin konformatu beharko naiz. ■